


ZERUERTZ



DBHko curriculum-ikasgaietan ezartzeko kulturarteko hezkuntzarako
UNITATE DIDAKTIKOAK

2023-2024 IKASTURTEA

UNITATE DIDAKTIKOETARAKO SARRERA

Hurrengo unitate didaktikoen helburua da **kulturarteko hezkuntza eta sentsibilizazioa** zeharka lantzea, **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumeko zenbait ikasgaietan. ZAKAN SOZIAL-ek** osatzen duen talde teknikoak osatu ditu, Nafarroako Gobernuak finantzaturako Zeruertz proiektuaren baitan. Proiektu hori **Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak** kudeatutako hurrengo deialdiaren bidez finantzatu da: *2023ko Dirulaguntza toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei, kulturarteko bizikidetza sustatzeko eta arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko proiektuentzat.*

ZERUERTZ proiektuak proposamen zabala eta malgua eskaintzen du ikuspegi komunitario, integratzaile eta parte-hartzaitik, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen aukeretara egokitze gai izanda. Horretarako, **esku hartzeko eta kulturarteko hezkuntzako hiru ildo** eskaintzen ditu, hezkuntza-komunitatean eta, beraz, kide diren lurraldean bizikidetza sustatzeko:

1. **DBHko curriculum-ikasgaiei lotutako material didaktikoa** (unitate didaktiko hauek)
2. **Kulturartekotasunari buruzko tailerrak** ikasgelan (ikasleei zuzenduak)
3. **Kartel-lehiaketa** (hezkuntza-komunitatean esku hartzea)

Emandako unitate didaktikoak DBHko irakasleei zuzentzen zaizkie, ikasleekiko kulturarteko sentsibilizazio eta elkarriketarako lan-tresna gisa. Helburua da irakasleek euskarri hori izatea **kulturarteko hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak dinamizatzeko DBHko curriculum-arlo jakin batzuetan.**

UNITATE DIDAKTIKOEN EBALUAZIOA

Lehen adierazi bezala, unitate didaktiko hauek DBHko curriculumeko hainbat ikasgaitan kulturarteko sentsibilizazioa eta hezkuntza lantzeko baliabide praktikoak eskaintzeko egin dira. Espero dugu horiek gauzatu dituzten irakasleei lagungarri izana.

Hobetzeko asmoz, jarraian, esku hartzeko tresna honi buruzko **balorazio-galdetegi labur baterako esteka** azaltzen da; honen helburua iritziak eta ekarpenak jasotzea da.

[Unitate didaktikoen gogobetetze-galdetegia](#)

Aldez aurretik eskerrak eman behar dizkizuegu galdetegia betetzeagatik, hausnarketa eta planteamendu kolektiboen baturarekin gizartearentzat erabilgarriagoa den ezagutza eraikitzen laguntzen dugulako.

Zeruertz taldea